

ZER

BIZKAITARRAI-BIZKAIERAZ*

155n. Zenbakia iraila
1991



BIZKAIKO FORU ALDUNDIA
KULTURA SAILA
LAGUNTZAILLE



**AKESOLO TA OLIBARES'tar LINO AITA
(1911-1991)**

- EUSKALDUN APALA
- BILLATZAILLE ZORROTZA
- LEKAIDE BEROA
- LAGUNTZAILE BEARREZKOA

EUSKALERRIAN EUSKERAZ

1991-92 IKASTURTEA

**OGEITALAUGARRENA
BIZKAIERAZ**

IRU MAILLA ETA ALKARRIZKETA

**EGUNAK: ASTELEN, EGUASTEN ETA BARIKUETAN
EDO ASTEARTE ETA EGUENETAN**

ORDUAK: GOIZ, ARRATSALDE ETA GABETAN

ORDANA: 12.000 pezeta

IZENA EMOTEKO-TOKIA: EUSKERAZALEAK

COLON DE LARREATEGI, 14-2

BILBO.

URRUTIZKIÑA 423.53.22

24.º CURSO DE EUSKERA BIZKAINO. 3 NIVELES Y CONVERSACION

**DIAS: LUNES, MIERCOLES Y VIERNES
O MARTES Y JUEVES**


HORAS: MAÑANA, TARDE Y NOCHE

CURSO COMPLETO: 12.000 pesetas

INSCRIPCIONES: EUSKERAZALEAK

COLON DE LARREATEGUI, 14-2 - BILBAO.

LINO AITARI



Bere aldikoien antzera

Lino aitaren bizitzea edesten ez dago lan aundirik: Bere aldiko lekaide ta abade askoren antzekoa dogu. Ez aitzu guda-ostean espetxeratuta edo erbesteratuta geratu ziran abade edo lekaide euskaldunak 500 inguru izan zirala. Dana dala ba-dagoz berezitasunak eta bakoitxaren bizitzea beti izaten da berezia.

Dima'ko Oba auzoan jaio eta ume-umetan joan zan ikasketak egitera Karmeldarren lekeide-etxera. Jaungoikoari bere bizitza osoa eskiñi-ondoren, gudaldia sortu zan eta gudarien kapellautza egiteko deitu eutsoen. Gero urteetan espetxean bizi bear izan eban eta ango urteak onuratu ebazan bere ikasketak sakontzeko, izkuntzak ikasteko, barruko bizitza indartzeko. Gero, nagusiak arazoa ondo ulertzen ez ebelako, urte batzuk erdelerrian igaro bear izan ebazan eta azkenean bere betiko bizitzara biurtu zan.

Berezitasuna

Lino'ren berezitasuna, liburuatarako eukan zaletasuna izan zan. Liburuak irakurteto eta liburuak idazteko zaletasuna. Ori bai ez dala bere aldiko abade ta lekaiderik geienak dauken gauzea: Jakitunen lagun eta jakitun bera be, errijakintzaren billatzaille eta liburu-gizon, Lino benetako gizaundia izan dogu gure artean.

Eta Oba'n ikasi eban euskerea benetan maite eban. Euskera ori landu ta edertu eta aurrera ateraten alegiña egin eban.

Euskerazaintza

Baiña euskerea lantzeko bidean be, berezitasuna agertzen da bere bizitzan: Eukaltzain izendatu eben, olako gizon jakintsu ta sakon bateri egoikon lez, baiña laster ikusi eban berak, erakunde ori okerreko bidetik joiala, erria alde batera itzi eta jakitun bakartien bidea artzen ebala eta orduan bere izendapen ori alboratu eta erakunde orretatik urten egin eban.

Pozik entzun eban 1978'an Bergara'n esan zan berbea, beste akademi bat sortu bear zala, Euskaltzaindiaren bide ori onartzen ez ebenak alkartzeko. Eta erakunde sortu-barri onetan Zuzendari izateko eskintza egin eutsoenean, ez zan beretzat gauza gaitxa izan baietza emotea. Dana joian bere jokabidearen arauz.

Omenaldia

Euskerazaintzak, gizon aundi oneri omena eskintzea bearrezkoa zala uste izanik, Dima bere errian eta Oba bere auzoan omenaldia egitea erabagi eban eta erabagi ori bete be bai: Mezea Dima'ko Eleizan, meza-ostean jakintza-giroko ekiñaldia Dima'ko Liburutegian eta Oba'ko bere baserrian idazki bat ipintea, bere gomutapeenez. Dana amaitu zan Oba'n bertan egin genduan gizarteko bazkariaz.

“ZER” eriotz-miñez

Aspaldiko urteetan asko dira ZER'en laguntzaille izan eta mundu onetatik joaten jakuzanak.

Samintasunez betea izaten da beti adiskideen agur au, baiña gure samintasuna mingarriago biurtzen dau, joaten diranak izten daben uts-unea beteteko iñor ez dala agertzen ikusteak. Dei egiten dautsegu ba gazte eta eldu euskaldunai idaztera sartu daitezcan eta euskereari bear dauan laguntza emon dagitsoen.

Illeta

Eta amaitzeko Lino aitaren illeta-eguna gogoratu bear: Begoña'ko Karmeldarren eleizea beterik zala, eundak abade ta lekaideak altara inguruan zirala, giputzak, Bizkai'tarrak, Naparrak, Iparraldekoak, onein artean Iratzeder Belok'eko abata... eleizkizun ederra egin genduan. Agur Lino, aita. Zuk egin dozu zeure egitekoa eta emen geratzen da zure lanaren ondorena. Izan zaite gure laguntzaille, guk be geurea bete dagigun.

ALAN ETA GUZTIZ, EUSKEREA GALTZEN

Ez dot birresango aldizkari onetan beste idazkideak idatzi dabena. Oraingo euskeraren egoera larriak gai aundia emoten dau idazteko. Orregaitik, iñoren alorrean sartu barik, zeozer esan nagikela uste dot.

EUSKERA EZ DA GALDU POLITIKAREN GORABERAKAITIK!

Badakit nere eritxi onegaz askoren aurka nazala. Orregaitik nire zergaitiak azalduko dodaz.

Kataluña ta Balentziak Euskalerrriak jasan dauzan goraberak berberak jasan dabez. Euren berberek baña ez dabe atzera egin. Gaztelania ta euren izkeren artean ez da aldatu mugea Erdi Arotik. Antxiñatik egiten zan katalan nai balentziarra Aragoiko erri batzuetan, gaur bere egiten da. Ostantzean Balentziako lurralde batzuetan beti egiten da gastelaniaz, ta an bere gauzak aldatu gabe gelditu dira.

Bestelan, mendeetatik zear euskereak atzera egin dau. Badakigu XIII-garren mendeko amaieran Errioxako Ojakastron egiten zana. Orain urte gitxi dirala, Sabandon jaiotako euskal idazle bateri omenaldia egin eutson Euskaltzaindiak. Sabando Arabako erri txikia dogu. An gaur bizi diranak ez dabe gordeten euskerearen arrastorik, ta ez dakie bere asabak egin ebenik.

Orain eun da amar urte dirala, Orduñan nere amamak ezin eban nere osaba bat iñudetu ta Astobizako baserri batera bialdu bear eban ume txoa. Gurasoen etxera biurtu zanean nire osabeak ez ekian gaztelaniaz tutik. Orain Astobiza ta Baranbion zearo galdurik dago euskerea.

Nire mutil-aroan (1945-ko urtean edo) Baranbioko gazte bat ezagututen neban. Ona dakart,

bere aititegaz berba egin ezin ebalako. Zaarrak ez ekien gaztelaniaz eta mutillak ez ekien euskeraz.

Apurka-apurka euskerea galduaz joan da, katalan eta balentziarrak iraun daben artean. Lege ta jaurlaritzak iruretarako berberak izan dira. Onexetan jarriten dodaz arrazoiak nire eritxiai eusteko.

NORENA DA ERRUA?

Nire ustez, gurea. Obeto esana: euskeraz dakien eta egiten ez daben euskaldunena.

Katalanak beti egiten dabe bere izkuntzaz. Nai ta ulertuten ez daben pertsonak aurrean izan. Orregaitik Bartzelonan eta beste industrialdeetako urietan entzuten dan gastelania, etorza-leak eroan dabe. Baña onelako gizamogimendurik egon ez dan errietan (Aragoiakin mugan, adibidez) katalanak ez dau egin atzerik.

Euskaldunak ordez, euskeraz ez dakian baten-bat agertuten danean saiatuten dira erderaz egiten. Au etorkitasunagaitik danean, onartu leiteke. Baña orrelan galduaz doa izkuntza.

Baña are ta txarragoa da, taldeko lagun guztiak euskaldunak izanik, erderaz egiten asten diranean. Ba gaur, Euskalerrian, sarri-sarri jazoten da, au.

Euskerea galduteagatik artega dan adiskide ermutar batek, bere errian jazoriko batzuk oneri buruz edestu daustaz.

Arratsalde batean euskeraren alde orma-deiak iratsiten ari ziran lau emakume. "Euskara zure eskubidea da" edo onelako esaldiak paper aretan agiri izaten ziran. Nire laguna gelditu ta

adi-adi jarri zan. Laurak egiten eben erderaz; laurak ermuarrak ziran.

Beste baten, bere aurretik alderdi abertzale baten ziñegozti bi joiazan. Nire laguna ariñago ebillan ezker, aurreratutean oartu eban erderaz egiten ebela. Biak be Ermuan jaiok.

Baita niri be onelako gauza batzuk jazo jataz. Orain aste gitxi dirala Bermeon nengoan. Edanetxe baten neskameakin euskeraz saiatuten nintzan (euskaldun berria naz eta). Bapatean emakume gazte bat urbildu zan. Erderaz asi zan. Itxuraz, egikeraz eta kutsuaz bermeotarra zala agiri zan.

Orrelakoak, makiña bat! Onelan doa gure berbaera. Gero errezena: Franco ta beste leengo agintariei erru danak bota, ta kito!

Gustiok egon gintzazan Francoren agindupean. Zergaitik batzuk ikasi genduan euskeraz eta besteak (geienak) ez? Zergaitik sendi batzuetan, nai ta Bilbaon bizi, gorde zan euskera ta beste batzuetan, erri euskaldunetan bizi-arren, galdu egin zan? Bein batean nirautson ikaskide bateri: "Gurasoak euskaldunak zenduazan, zure semeak ez dakie euskeraz. Baita Francoren erruz?"

Ez dot ukatuko eskola nazionalak eta agintari batzuen eginkera eragite kaltegarria egin dabetik. Baña eragiterik kaltegarriena euskaldunen ardurabagatasuna izan da.

EUSKERA TA LEGEZKO ARLOA

Alderdi abertzaleak, lege bidez, euskera (obeto esana euskara) inguru guztietan sartutea bultzatu dabe: irakasketan, jaurlaritzan, aldun-

duietan, etab... Edozein lanpostu eskuratuteko euskara jakin bear da.

Gaurko Euskalerrian, jaiotez geienak erdel-dunek diran ezker, alderdi abertzaleen ekintza orren aurka oster indartsua sortu da. Norena da arrazoia? Ez naz eztabaida onetan sartuko, baña gaur aginduten dabenei egi borobil batzuk esan gura dautsedaz:

1. Paperetan baño, gizasemeen espanetan euskera bizi dedilla garrantzitsuagoa da. Ba egun gustietako artuemonetatik galduten ba da, galdu egingo da nai ta paperetan gorde.

2. Bere itzagaz izatea emoteko, Jaungoikoak bakarrik dauko almena. Orregaitik, agintariak ez dagiela uste izan lege ta aginetakaz edozer gauza lortu leitekeenik. Legeak euskerari laguntasun ona emon leikioe, zuertasunaz egiñak ba dira; baña laguntasun utsa.

3. Apalditik euskera galduta dagoen errietan berbiztutea baño, oraindiño egiten danetan gordetea, bearrezko ta errezagoa da. Beraz, Balmaseda nai Orduñarak baño len, Bermeo ta Ermuarako dirua ta ekintza izan daitezela.

4. Goian aipatu dogun zuertasunak, Bizkaiko ikastoletatik *batua ori oraintxe bertan aldendu bear dala* erakusten dausku. Bigarrenez diñogu: euskera sendien artuemonetatik galduten ba da, alperre'ko gauzea izango da irautea.

Beste gauza asko esango neuskiez aginduten dabena. Baña gaurko naikoa da.

Jaiotez euskaldunak diranei: erderaz gitxi-gitxi (obeto bapez) euskerari buruz egin; beti euskeraz.

IBAÑEZ KARLOS

TERESATXO DEUNAREN LAU POEMA

(AITA SANTI ONINDIA'K EUSKERATUAK)

Ene Itzaropena

- 1 Katigu zagoz, ene arima!,
katigu zagoz lurrean;
baiña Aberri gaiñak laster
ikusteko zori onean,
laster aurkituko nazala
zeru ederrez gozatzeko erean.
Oi lenengo ego-eragin betea,
Jainkoagana bizkor jotean!
- 2 Emoidazuz, Maite, ego zuriak
uso mezulari pareko,
ta betiko ur-ertzetara
egaz dagiket zapla azkarka.
Maria'ren beso ta mosu artean,
Zeu ikustearren naz egaztuko...
Irrika berotan naukazu ni,
Aren leen laztana artzeko.
- 3 Zure len-laztana, Jesus!
txasta daidala lenbaitlen,
sukar-ames gozotan, bai,
ikusi naizula gozaten;
ta... ala-bearrezko zori!,
zure abotsa ozen aditzen...
Arpegi eder ori ikuskatuz
dot betiko poza izaten?
- 4 Zure maite-sua, Zuk ba-dakizu,
nire min larria nik egadea
beingoz jasoko goi-goiraiño,
Zu ikus-nairik opa nik iltea.
Itxuraz dirau zutik arimeak
sagar-alez eta loraz asea,
iñoiz zimeltzen ez jatzuzan
frutu mordotan naiko narea.

(1896, bagillaren 12)

2. JESUS AURRARI

Ondo dakizu, ene Ume,
ze izen dodan nik!
Zure aotsa dantzut gaur,
dei-itza gozorik!
Neure *lilitxo*,
laga eidazu nik zuzentzen
zure untzitxo.

Eta uin orruz lertuak
euren illetakaz,
ai, ene laztan oril,
zeure losinga leunakaz
urruma txit zakarrak
eme jarri zenduzan
zeure irripar lorakaz.

Nire altzoan ba jarten dozu
zeure Jainkozko burua,
ekatxa zuk dozu ibiltzen
txito bare biurtua.
Zure buru gorrizka
leun dautzut erabilliko
maiteki dantzatua.

Lo dagizunean irripartsu
aingeru bat dirudizu,
Lo eizu, ene Umetxo!,
nik nai dautzut kantatu;
eta eresi gozoz
nik zure kumari eragingo
betiraun betikoz.

ARPEGI DONEARI KANTA

Izar oso dirdaitsu da,
oi Jesus, zure irudia,
nire urratsak daroazana
aran tristean zear.
Berau nire zeru lurrean.
Zure betarte atsegiña,
ortxe nire maite-irritsak
gauzak oro ditu ikutzen.
zure begietan dakus
eder ezin esana,
malko bitartean somatuz
itxaso sakoneko perlak.
*Eta irri ta negar artean
zer ez daki egiten,
era orretan ikustean
nire arimak zure miñak?*

Aztua naz biziko,
zu alaitzeko;
zugaz biziko naz
bakar-orduetan.
eta Zuk aztu arren,
ondo dakizunez,
zeure edertasunetan,
odolezko zapi-arte,
nire maitasunak igarten
misterio oso aunditan
eta egoak nai leukez berak
araiño egaz egiteko.
*Eta irri ta negar artean
nire neke-miñak ikusiz,
sufritzen ikustean,
ez daki zer egin!*

Aberririk ezta niretzat
Zure Aberri antzekorik;
erreñurik ezta niretzat,
Maite, zurea langorik.

LLanda irribarretsua
loraz eta txoriz dago,
dirdir dagi biziro
goitik eguzki jabalak,
eta or da aldi berean
aranetako lili panpoxa;
onen usain gozotan
gotzonak dira alaitzen
eta zeru-gozotasunez
erbeste be zerutzen.
*Beraz, irri ta negar artean,
ez daki nire arimeak
zeri egiaz oratu
irudiari begira.*

Atsedena gura ezkeru,
makartuz noakizu
zure Arpegian, eta orduan,
ez-usteko pozkario!
Arpegi orixe jat lira
soiñu, ene!, zoragarritzkoa,
gogoa jarten dauana
jainkozko bir-loraldian;
eta señera biurtzean,
zure begiak ikustean
miesa eder eurok dirala
adierazo daiketzut,
eta lora-txorta arturik,
mosukatzen dot pasionariaren
lili-kukulu bakotxa.
Eta beingoan dot jarten
neure saiets gaiñean
zure *irudi* maite-eztia.
*Eta negar eta irri artean,
ez dakit nik zer egin;
ain dot biotz nimiñoa
ibar-arte tristean!*

Neure altxorra ikusiz
ezer ez da bestea;
beragaz, bizi nazeiño,
ezkututu bear nik.
Jesus, arnasa dagit,
neuretu gura zaitut;
zeure antz-lerro guztitan,
zeure farrantz osoan.

Txit gozo izan nai dot,
aingeru bat izan nai dot;
ona eta sufridua,
zure irudia izan nai dot...

Santu izatera elduko naz,
biotzik asko-asko Zuri
emotera naz elduko,
arima aundi asko-asko.

(AZKENENGO ORRIALDEAN
JARRAITZEN DAU)

MARINO LEJARRETA

Zu jaioten ikusi zinduezan etxe, zelai ta mendiak, asko, poztu dira. Euren antzekoa zara, arnasatsu, erri-meia ta zintzoa. Marino, zenbat bider begiratu zendun Oiz mendira trumoi-artean dardar ta eguzki-artean dizdiz egon izan danean...! Zenbat bider zabaldu jatzun biotza Durango aldeko ibar orlegira begira...! Ta aldi aretan, zure gorputza ta gogoia, gora ta bera, ebiltzan Oiz ta Durango bitartean... geroago Euskalerrian ta irugarrenez Europako lurraldeetan...

Berriz'ko zelai artean gauz bi artu zenduzan, bata lez bestea eder... gizatasuna ta bizikletarako erreztasuna. Aitak eta amak egin zinduezan, esan oi dan legez, norbait izateko ta zerbait egiteko. Ta zuk, seme leial legez, ontzat artu zenduzan gurasoen arnasa, abotsa ta bizikletarako deia. Geldi geldika ta zentzudun, egoki, eratu zendun zure gaztetasuna asmo eder bi orren gurpil gaiñean.

Lenengo, zu ibili ziñan mendi, arru ta zelaietara bagira, amets zoragarri bat ba-litz lez, buru ta biotzak iges egiten eutzuen gainik gain, aldatz-bera ta zelaiak zear. Astiro baiña ziur, bidien jaubetasuna lortu zenduan. Gero, Oiz zuri adi zeunkan ta Berriztik berako bidea semeari begira, irriparez, etorkizuna, aurrean, ebalarik.

Geroz, maisu bat egin ziñan bidebarrietako arin aringetan. Berriz ta Euskalerrria bera, adi zeunkazan gurari onenak zuretzat opa ebezelarik. Zure gizatasuna ta zure Euskalerrriarena, zuregan, batera, ospatzen zituen. Erri bat ta seme erritar bat alkarrekin ebiltzan lanean ta garaitzan.

Eta orretan, txirringulak ta gizon eldu ziñan udabarri ontako ibillaldi nagusira. O.N.C.E.'en taldea, ondo, armatuta egoala zirudian indarrez, trebetasunez ta jakituriz. Zuen gogoia gertu egoan zerbait egin guraz ta jenteari poza emon gurarik.

Gauza egokia da, bein plazara urten ezkerre, zerbait egin nai izatea ta erritarren ta adiskideen artean poza zabalduzea. Ibillaldi onetan, ondo betetu dira asmo eder onek. Zeuen pentsuan euki izan dozuez millinoiak lagunak, egunetik egunera, beti, gurari bardiñagaz... irabazi, irabazi dagiela esanez, merezi dabe-ta.

Aldra bikain orrek, ederto, agertu zituan gaitasuna, trebetasuna ta alkartasuna. Lenengo ta bein, almen bikain orrek, berez artu bear dira, ta bigarren, gizontasunagaz landu ta eratu bideak zear. Ondo jokatua, bere ondorengo irabazia eskuratzen dau, zuen gizatasuna alkarrerri laguntzen, ainbeste bidetan erakutsi ona emon zeuntsen bideei ta itsuak izan ez ta ikusi nai daben persona guztiei.

Baiña beste zertzelada bat bere oartu gendun ibillaldietan... Marinoren jokabidea. Ainbeste lan eder egin ondoren, zure egite bikaiñen eran, ez zinduezela onartu zirudian, or, beste lurraldeetako barri emoi-leak. Berrizartzak bota zinduezan antza. Ta Berriz erri polit bat da Oiz mendi barrenaren babesean, ixil ta indartsu, seme jatorrak sortzen garai danean.

Ta azkenez, guazen aurtengo irugarren bizikleta arin-aringara. Munduak diñoanez, Prantzia da bizikleta arin-aringan bideetako nagusi. An, alkartzen dira munduko onenak... An agertzen dira almen, jakituri ta trebetasunak. Ta zuk, Marino, gitxik egin oi dabe-nez, ekiñaldi aundi bi eginda egon arren, ara joateko erabagia artu zendun. Batetik bestera, Italitik Prantzira joan bitartean, gogo ta gorputz atsedendu ta indar barritzeko denpora gitxi zeunkan; baiña barruko leiak dei egiten eutzun, "joan adi, mutil", esanez...

Ta nork itzi erantzun barik, baietza emon barik, al dana egin barik...! Egiz, antxe, agertu bear zenduan euskaldunen gizatasuna... azkeneraiño jokatu ta al dana egin... Benetan zuri adi zeunkazan Berriz ta euzko erritarrak.

Irugarren ekiñaldi nausian, utsik ez zenduan emon, iñor etzan lotsatuta geratu ta al zan itxura onean osotuta geratu zan. Euskaldunak, erria ta semea, ondo alkartuta, gizontsu, gelditu ziran. Al zana egin ta emotea izan zan gurari guztia, indarrak agintzen eben eran. Ta onez goitik, euskaldun leiñargiak, ez aundikeri ta ez musika larririk ez zenduan erabili. Gizontasuna, oroz goitik, egun bakoitzeko ekiñaldiari, al zan era onenian erantzunik.

PAULIN

ANTXOATAN NAGUSI

Bare aldikoan antzera

Ezin ukatu azken urteetan antxoatan berakada andia ezagutu dogunik. Euskal portuetan, gure kaietan, sartzen zan antxoaren laurenik be sartu ez eta arrantzatu be ez egitea ezagutzera eldu izan gara.

Gaituak, teknikoak, or ibiiko dira burua-austen, antxoaren urritasun eta utsuneari bere zegaitiak eta arrazoiak ezin billatuta.

Batzuk itxasoetan nazio bakoitzak artutako neurriak besteez eragozpen lez ikusten. Besteak arrantzaleak antxoaren arrantzan erabilten dabezan sare, trein eta erabideetan akikuluren bat billatu eta aurkitu nairik. Batez be antxoa txikiaren arrantza eta abar salatzen.

Kantauriko antxoa, antxoarik onena

Antxoa, deitura orregaz, nai bokarte, edo antxoeta, eta abar, munduko toki askotan ezagutzen dan arraiña da.

Eta ugaria gaiñera. Ugaritasun ori dala-ta, urte batzutan, nai eta emen antxoarik sartu ez, Peru, Argentina, Turkia eta abarretako antxoa gazitua ekarri izan da, eta areitako antxoa emengoa baiño latz, arol eta zakarragoa izanarren, zela-ala antxoa filete utsunerik ez da igarri izan.

Era batean kaltegarri izan da; moko-fiñen artean len baiño antxoa-filete jate gitxiago igarten dalako. Baiña merkataritzza or dago.

Aurrera goaz ikerlanetan

Ezin ukatu antxoaren ikerlanetan, estudioetan, aurrera goazala. Len kaliforniarrek ziran orretan geien alegintzen ziranak, Ipar Pazifikuko antxoaren stokari eutsi naiean.

Orain AZTI-SIO Eusko Jaurlaritzaren Ozeanografi, Arrantza eta Elikadurako Teknoloji eta Ikerketa erakundeari esker, Euskal-erri onetan, batez be Kantauri itxasoko arrantzari buruz egiten diran ikerlanetan, aurrerakada gogorra egin da.

1989 urtean "Ibaizabal Bi" Portugaleteko atoi-ontzi eta Ondarroa'ko "Siempre Ongi Etorri" erabili ziran bai antxoa arrantzari buruz eta bai antxoa mardulen arrantzari buruzko ikasketak egiten.

Eurei esker gero ta obeto ezagutzen goaz itxasoetan arraiñen arrautz denboraldiak urrengo urterako zelako itxaropena dakarren.

Antxoak eta arrautzak

Antxoa, arrautz-giñan, ugaria da.

1989 urtean arrantzatuiziran erdiz-erdiz neurriko antxoak bateko 29 gramo pixatu zitun. Eta gau bakoitzean, lau gauek bein, amairu milla arrautza ipinteko gai zan.

Uste da, kilo bakoitzean, batez beste, erdiak baiño geitxuago emeak zirala (Zeatz esanda, 540 gramo eme eta 460 ar, kilo bakoitzean).

Orrela ikerlariak konturatu ziran batez beste, ar eta eme arteko tonelada bakoitzetik, egunero 62 milloer arrautza geratzen zirala itxasoan eta amaika milla ta erdi tonelada antxoa bear zirala egunero 730 milloer arrautza iminteko.

Ze gertatu zan 1988 urtean antxoa gitxi arrantzateko?

Teknikoen ustez itxasoan egoan antxoa baiño gitxiago arrantzatu zan 1988 urtean. Zegaitik?

Ba 1988 urtean adiñez urte beteko zan antxoa, bestetan baiño iparraldekoago zalako, eta emengo txalopak ara joateko erreztasunik ez eukelako, baiña 1989 urtean Kantauri itxasertzerago egon zan, eta orrek geiago arrantzateko aukera emon.

1990 urtean

Urte orretan, batez beste, 265 txalopa ibili ziran antxoa arrantzan. Martia'ren 1'etik asi eta Ekainilla'ren 15 bitartean, jai-egun, eguraldi txar eta abar kenduta, 48 arrantzako egun kontatu ziran. Eta Kantauriko kaietan danetara 16.401 tonelada antxoa sartu eta saldu ziran.

Maiatza izan zan azken bost urtetako illik aberatsena. 11 aretan antxoarik geiena kiloko 37-44 garau sartzen ziranetakoa zan. Baiña illaren azkenetan neurri orretako antxoa urritu egin zan eta 50-60'koa sartzen asi. Orrek antxoateari bere onurea galdu eragin utsan.

Eta antxoa txikia, txitxiña, zer?

1989 urte eta aurrerakoetan ia bi milla tonelada antxoa txiki arrantzaten ziran urtero, kostera edo sasoiak kanpora.

1990 urtean galerazo egin zan, eta eskutuan zerbait arrantzatu eta saldu ba zan be, ezin esan ainbestera eta gitxiago be eldu zanik.

Ondarroa antxoatan nagusi

Antxoa sarrerarik geienekoa azken bi urteetan.

Ondarribian asi eta Cudillero arteraiñoko kaietan, 1989 urtean antxoarik geien sartutako kaia, portua, Ondarroa izan zan.

Bizkaia'n Ondarroa geien,	2.091.763 kilogaz.
Ondoren Lekeitio,	656.433 kilogaz.
Urrengo Bermeo,	358.237 kilogaz.
Kantabria'n Santoña geien,	1.175.927 kilogaz.
Castro Urdiales bigarren,	358.237 kilogaz.
Gipuzkoa'n Getaria lenena	1.250.713 kilogaz.

Eta 1990 urtean?

Gipuzkoa'n , Getaria'n	3.110.180 kilo sartu ziran.
Ondarribia'n, urrengo	1.102.328 kilo.
Irugarren Mutriku'n	691.345 kilo.
Bizkaia'n, Ondarroa'n geien	4.820.118 kilo.
Bermeo'n	2.516.893 kilo.
Lekeitio'n	793.598 kilo.
Kantabria'n, Santoña'n	3.537.572 kilo.
Colindres'en	1.021.651 kilo.
Santander'en	727.029 kilo.
Asturias'en, Cudillero'n	1.469.194 kilo.
eta ondoren Aviles'en	1.274.850 kilo.

Jakingarri oneik Eusko Jaurlaritzako 1989 eta 1990 urteei buruzko Agirietatik atara dira.

Oi danez, aurtengorik urtea amaitu arte ez da zabalduko.

ZUBIKARAI'tar AGUSTIN

AKESOLO'TAR LINO

Bizkaiko Dima, Oba auzoan,
bakez egon baserria,
zugatz lerdenez inguraturik,
guraso maiteen etxia;
lepo aldetik zaindari legez
arkaitz illeda zuria,
ongi etorri, ots egiñagaz
Euskalerriko loria.

Baserritar lez beiak jagoten
gurason esanean,
aurrez aur, eukan Gorbei aundia
erraldoi baten antzean;
Jainkoa egon zuri begira
euskaldun mutil artean,
ta goiz on baten dei egin eutzun
maitasunezko itzean.

Ta nork uts egin Aita Onari
biziaren Jaubeari,
bere berbea argia bai da
munduarentzat gidari;
Oba guztia Berak egiña
on eiteko gizonari,
emen naukazu Aita maitea,
artu naizu serbitzari.

Zoragarria otseintz apala,
egin dozuna lurrian,
Jaungoiko Jauna Euskalerriaz
alkartu dozu bidian;
egunik egun, aspertu barik
jorratu zendun lanian,
gure izkuntza aberastuaz
urregorrizko izkian.

SOLOZABAL'tar PAULIN

ERRALDOI BATERI

Oba'ko abi goitarrean
asi zan bere bidaia,
Begoña Karmeldegian
etorri yakon amaia.
Euskerea zan beretzat
landu bear eban gaia,
aztutako Errauskiñea,
maitasunaren ibaia.

Larrosaren biderik ez
aren ibilte luzea,
irribarre bat noizbeinka
baita askotan oiñazea.
Ezagutu eban iru urtez
espetxekeo naigabea,
eta gero epe luzean
ogi baltzako erbestea.

Sutean bakar-bakarrik
zetzan euskera maitia,
danok aztuta gaixoa
gure lilitxu isiltia.
Biotzean aditu eban
aren aiene geldia,
ta eskiñi eutsan betiko
bere maitasun bizia.

Oiñazez geratu gara
maite-maite genduanak,
nork bete aren utsunea,
nork egingo aren lanak...?
Banan-banan ikusten doguz
gure euskaltzale joanak,
noiz etorriko, ai ene,
kimu barrien laztanak...?

Zutunik amaitzen dira
basoetako tantaiak,
euskeraren alde ekiñez
gure Euzkadi'ko erraldoiak.
Apal eta isil-isillik
badoaze gure anaiak
obian besarkatzeko
ama lurraren erraiak.

Begietara malkoak,
biotzean nigarrak,
euskereari darioz
pairamenezko didarrak.
Bera lez galdutakoak
zeruan doguz izarrak,
zaindu begie euskerea,
zaindu begiez geutarrak...!

Oiñazez yabilku
arima negarrez,
andia zan bera
euskal maitasunez.
Erraldoi sendoa
apal eta isillez,
beragan onena
euskereari emonez.

Gure Akesolo'tar Lino,
agur biotzetik,
geugan iraungozu
betiko bizirik.
Egun Andirarte
Jaunagan baturik,
artu gure otoitzak
samurrez beterik.

ZUBIRI'TAR IÑAKI

BESTE TXANGO BAT

Bai gorputzak eta bai arimeak, euren atsedena bear dabe; gaur iñoiz baiño geiago. Orra mundu guztiak ar-tzen dabezan opor-aldien errazoia. Praille-ordenen legeak zentzun aundiz egiñak dira; beraz, gure aspaldiko legeak, opor-aldiok be eratzen ebezan. Karmeldarrok beintzat, urte Erdiko barauen ondoren, au da, irailaren 14'tik Pazko-aldira arteko barau ostean, ia bost-sei illa-betea, illero egun bateko opor edo kanpoko ibiltaldi bat ospatu oi genduan, naiz-ta gaur oitura oni garrantzi aundirik ez emon, leen baizen zorrotz beñik-bein.

Alan be egiten ditugu txango berezi batzuk. Urtero bat, karmeldar probintziko olan nai daben lekaide guz-tiok leku egoki baten, janari ta guzti, alkaturik. Euskal-dun probintzi au, aintxiña-aintxiñatik NaparruarJoakin Deunareuna deritxona, napartar, logroñotar, arabar, gi-puzkoar, bizkaitar eta kantabriarrez osoturik daukagu, geienok jakiña euskaldunak. Eta, esan dodanez, emen inguruko mendi eta lekurik eder-apaiñenetan (Artze-niega, Oro, Kodes, Urkiola, Arantzazu, eta abar) batzen gara. Aurten, Burgos'ko probintza dan arren, euskale-rritik ur-ur dagoan Zid'en Santa Gadea erritxoan batu gintzazan, irurogei ta amar bat karmeldar lekaide.

Eguzkia oraindik nagi samar ibilliz, eguna zerbait lu-zatzen joian aldi, bagillaren erditik gora. Amarrak eta erdietan an egoteko deia artu genduan. Batzuk Miran-da'tik, beste batzuk Orduña'tik naiz Gasteiz'tik arako bidea arturik or zan bakotxak ondoen eritxon bidez eta ibil-burdiz.

Gu iru giñan Larrea'tik aratu giñanak. Arratiarrai agur egiñez, Barazar atzera itxirik, Gasteiz'tik, Miran-da'tik Pankorbo 'rantza... Emen, lendik be bidea ba gen-kien arren, Artzaiñari jasotako oroigailu ondoan, bada-ezpadan, "Espina'ko (Arantzazu'ko) Andra Mariaren monastegira nundik joaten zan itandu genduan."—"Ortxe bidea, ara daroana", erantzun jakun. Euki be an-txe bertan geunkan, geure zain. Bide onek ba dauka ga-rrantzirik. Zergaitik. baiña? Aintxiñako urteetan, Espa-ña'ko erregeak, lagun asko lagun ebezala, euren zal-purdietatan bide au artzen eben Puentelarra, Orduña, Larrabetzu, Morga, Muxika zear, Garnika'ra eltze-ko; andik Bermeo'ra eta euren zeregiñak amaiturik, lengo bidetik biurtuko ziran etxera.

Ez gintzazan gu lenengoak izan "Espino'ra eltzen ezta azkenak. Gu aratu aurretik, alan be, prailletza ga-lanta egoan bertan. Beste asko ba etozan, andik eta emendik. Arek eta onek alkar agurtu eta zoriondu on-doren, lenengo amarretakoa egin bear zala-ta, bakotxak janariz beterik ekazan topin eta ontzi eta tresnak artuaz, konbento aurreko zugazti zabal ederrean banandurik, bakotxak bere lekua artu eta sabelak ixiltzen asi giñean, ia ordu bete.

Bakartade au gaur-egun "Espino'ko Andra Mariaren Lekaretxea", Aita erredentoristak daukie Alkartze eta Otoitz etxe biurturik. Miranda'tik ur egiten da, amar ki-lometrora, Ebro ondolik zear, Gadea aintxiñako errian kokatua. Pankorbo 'tik Bilbao 'rako bidean 625'garren kilometro nazionalean; Burgos'tik 80 kilometro eta Bil-bo'tik bardin, 65 Logroño'tik eta 45 Gasteiz'tik. Egu-raldi eguzkitsua ta alboetako mendietako aixe mee oz-kirriz gozatua. Giro atsegiña, benetan.

Bakar-etxe au orain gogartetxe biurtua. Toki bake-tsu ta egokian, Erredentoristen gazteen nobiziadua da 1879'tik aurrera; inguruko gazteak lekaide izan nai da-benak, ementxe daukie aterpe atsegingarria. Lenago, 1410'tik 1836'rarte beneditarrak bizi izan ziran toki bi-kain onetan. Gadea'tik ur samar, solo zabal artean. Urrin samarreko mendi-erpin jagolez babestuta.

Astegunetan bertan bizi diran lekaide eta gogarte-txeoentzat bereziki izanda be, igande eta jaietan ingu-rukoentzat be ateak zabalik daukiez. Eukaristia ospa-tzen da bertan 9'etan eta 12,30'etan; autortzak entzuten dira, gaixoai lagundu errietan Jaunaren itza ots-egin; au da, parrokiia dan ezkerro, parroki baten egin oi diran zer guztiak beteten dira.

Leku onek zergaitik ete dau "Espino"-ko Andra Mari izena? 1399'an, an inguruetako artzaiñak (gureak araiño eltzen ziran garai aretan, euren artaldeakaz) An-dra bat ikusi eben, Andra Maria, zeruko Ama euren-txat, elorri baten gaiñean. Arrakasta aundia artu eban ikusketa orrek an inguruko etxe eta errietan, eta artzai-ñen artean. XV'garren gizaldiaren lenengoetan, jaso da orain be zutunik daukagun eleiz ederra, gotik egi-kera garbi-garbia, urteetan zear santutegi izana eta gaur be santutegi doguna. Altara nagusiaren goian erdi-erdian dago, ondo be ondo zizelaturiko Andre Maria-ren irudi bikain-bikaiña, "Arantzazu'ko Ama" deri-

txona. Eleiza au, beneditarrak jasotako guztiak lez, egi-
kera berezikoa dozu, eder zabal aundia, barne debozi-
ñoa sortzen dauana.

Gosaldu ondoren, emen alkartu gintzazan gu. Ango
arduradunak, gu somatuz bat, barruko argi guztiak
biztu zituan. Guk, Aita Arostegi gure probintziala buru
genduela, alkar agurtu eta ari ta oni (ameriketarik eto-
rriak be ba-ziran) zorionak emon ostean, geure otoitzal-
dia asi genduan. Erri-otoitzen ondoren, gazte batek sei
bat minutuko irakurtaldia egin euskun Gurutzeko Juan
deunaren idatzietatik, gozo-gozoa nunbait. Irakurria
pizkat ausnartu ondoren, erri-otoitzak, kantuak eta Aita
Gurea euskeraz eta erderaz... Orrela amaitu zan gure
iru bat ordu-laureneko gogoeta aldia.

Ordu biak inguruan izango zan bazkaria. Ordu bi-
edo geunkazan bazterrak ikusteko. Nik, beste askok lez,
Santa Gadea'rako bidea artu neban; istoriz gainezka
dago aintxiñako erri au, erdel erri baiño euskal erri
itxura eta doiñuz antz geiago daukan Gadea au. Jato-
rrak dozuz bertako kaleak eta etxeak, amabost-amalau-
garren gizaldiko egikeraz, buztin-errez eta adrilluz egi-
ñak.

Eleizea miretsi gendun, aparteko eraz egiña. Gure
artean lez an ez dabe oraindik ezer aldatu, Kontzilio os-
tean be. Altara nagusia oso bikaiña, urre bereziz mar-
goztua. Santu pilloa (ez dakigu zergaitik) kapilla baten
daukiez danak moltzoan, urte batzuetako autsa gain da-
bela. Lenago kanoniguak egozan emen, eta eguneroko
Ordu-otoitzak alkarrekin osotzen ebezan.

Erri au, esan dodanez, gora aundikoa zan bere den-
poretan. "Santa Gadea de Cid" deitzen dautsoe; Cid
aundiakbe, bada, parte artu eban emen; errian irakur-
ten dira euskal izenak eta itzak; etxeak ez dagoz banaka
euskal errian lez, moltzo estuan baiño, inguruan solo ta
zelai ugari eukita be, eder jakon antxiña-antxiñatik, al-
karren ondo-ondoan bizi izatea. Erritik lau pausora, er-
mita bat daukazu, Santa Gadea'ri eskiña, eta antza da-
nez emendik zear Konposlela'ra joiazan erromesak ja-
sotakoa: Naparroako Eunatekoak eta onek ba dabe ki-
detasunik.

Monastegira biurturik, bazkaria. Ortarako eleiz,
frontoi eta komentu ostean, zugaztiaren albotxoan, mai
zabal eta jarleku ugariz ornidua daukie prailleak, ara

doian jenteak aukera izan daian, ondo be ondo gertatu-
rik. Gazte-talde bizkor askok dabe ara joera, eta jakiña,
bear olako aukerak: mai zabal luzeak, pixa-tokiak
aterpe ta guzti, azkenean teatruak egiteko lekua be bai.
Eta egurastu naiz aizea artzeko arboladi kilometro erdi-
koa. Guk emen bazkaldu gendun, gauzea umore on-
onez gozatuta.

Bakotxak ekarri ebanetik barruak ondo aserik, ari ta
oni goizean lez maitekiro agur esanik, ango biztanle eta
lekaideai be bardin, guztiok, kantu ta agur artean, etxe-
rako bidea artu genduan. Guk, Larrako irurok, Ordu-
ña'rantza. Beiñola Espaiña'ko erregeak. Gernika'ra zin-
egitera etozanean ekarren bidea guk be egin gura izan
genduan. Eta iparrerantza arturik, laster giñean Ebro
ertzean, ots, Puente-Larra'n; ibai gaineko zubia igaro
eta bertan zerbait ezkerre egiñaz, Espejo eta olako
arabar erritxoak atzera itxirik, emen gu laster Orduña
gainean.

Aurrez-aurre dogu Bizkaia. Emen iru jobide dauka-
guz. Eskumatik jo ezkerre berton gaurko Orduña'ko al-
datza, lenago etzan emen biderik. Euki ementxe dau-
kagu, eskumaratxoago. Ikuspegi eder bat, ur-saltu izu-
garria, ikustea merezi dauana: ementxe dau bere so-
rrera Nerbion ibaiak. Asko joan oi dira ona eguna emo-
ten.

Erdi an daukagu, Orduña'ra begira, gane-ganean,
Txarlazo deritxon lekua, Orduña'ko zaindaria dan An-
dra Maria'ren irudi galant bikaiñagaz; egunez zoragarri
eta gabaz argiz ñirñirka. Goialdetik bide aukerakoa
daukazu gaur bertaraiño nai oiñez ñai kotxez joateko.

Ezkerrerago dago beste elbide bat, Araba aldetik eta
Orduña'tik bertatik. Ni ortik ibillia naz iru bider beini-
kein, Santutegiko monjai gogo-iñarkunak emokeran as-
tia izaten neban andik gora Txarlazo'ra igoteko. Berta-
tik gora, zugatz-arte bide atsegiña; goi-goian aitz aundi
bategaz topo dagizu, baiña karaitz ori erdi-erditik eba-
gita dago. Pasu onek badauka bere izen berezia, eta nik
beti esan dot auxe zala Erregeak Bizkaia'n sartzeko
igaro bear eben aitz-arte.

Gu geroago ebagitako aldatz-bidetik jatsi gintzazan,
eta ez txarto. Gaberako Larra'ko geure komentuan gi-
ñan besteakaz batera apari-izkia egiten.

AITA ONAINDIA

EUZKERA'RI BURUZKO ARGIBIDEAK

Bazkide ta adiskide begikoak:

Azkeneko igandeetan, ikusi aal izan dezutenez, ETB'n Meza Santua euzkeraz eman digute berriro.

Jarraitzeko asmoz asi baldin ba'dira, eskerrak ematen dizkiegu, Meza beren izkuntzan entzun nai duten guzientzen izenean eta baita gurean ere.

Ogeitabigarren Aldizkarian, euzkera garbitze ekin-tzari asiera-eman genion. Au, aldizkariaren azkeneko orrialdean argitaratuko degu, onela, bilduma egin nai izan ezkerorri, orri au errez askatu diteke.

Orri onen idatz-argazkiak (fotocopias) atera eta zuen sendiko eta adiskide artean zabaltzen ba'dituzute, Euzkera'ren alde, lan onurakorra egingo dezute.

Aldizkari onetan, "Euzkera'ri buruzko argi-bideak" izeneko lenengo orria arkituko dezute.

Orri auek bildu ezkerorri, Euzkerizti laburra osatu zenezateke.

Aitatutako orri auen beko aldean, au irakurriko dezute:

"Euzkera aldeztu, bizkortu nai ba'dezu, idazki onen idatz-argazkia (fotocopia) egin eta zabaldu ezazu!"

Berriz ere, Euzkera'tzaz zuen jakintzaren arabera, lankidetasuna eskatzen dizuegu. Ontarako, Amale'kin elkar-artu (287130 urrutizkiña), eta berak esango dizue zein egun eta ordutan biltzen geran.

Billeetara etorri ezin ba'zerate, urrutizkiñez ala idatziz (1067 bidal-tokia) egin nai dituzuten galderak edo zuen burutapen eta asmoak azaldu.

Bein eta berriz, zuen lankidetasuna eskatzea ez da gure zoraldi edo naikeriz; Euzkera Euzkotar guziona degunez, bera aldezte, pizkortzea, beruntz egin bearrean goruntz bultzatzea guziona lana dalako baizik.

Uztailla-Dagonilla'ri dagokion aldizkari au, ill onen, Uztailla'ren azken alderajasoko dezute. Dagonilla, daki-zutenez, opor-illa izaten da, eta jakintzari buruzko ekin-tzak gelditu egiten dira, onexegaitik aurreratu degu Aldizkari au.

Ala ere, gertaerak eta berriak jasotzen aleginduko gera eta Irailla-Urrilla'ko 24 gn. alean jakiñeraziko dizkiezuegu.

Udara zorionsua opa dizuegu eta laister arte.

Gure Araudia'ren 2 gn. Atala bialtzen dizugu, gure asmo ta elburuak ikusi ditzazun.

Elkarte onek, arbasoak utzi ziguten euzkera, Arana Goiri'tar Sabin'ek egindako ikasketen bidez, guregana iritxi zaigun eran, du oñarri.

Ortaz, 1896 gn. urtetik asiko gera, gure adierazpe-nean, orduan argitaratu bai zan Sabin'en "Lecciones de ortografía del Euzkera Bizkaino" izeneko idaztia. Oraingo aldian, euzkaliztian agertu dan lanik aundiene-takoa; R.M. Azkue jaunak "El libro de las 300 paginas de oro" izendatua.

Len ere euzkalari onak ba ziran, jakiña, baiña Arana Goiri'tar - Sabin, aundienetakoa izanez gaiñera, euzkera garbitu ta euzkal idazkera sortu zun, bidezko idazkeran oñarritua.

Sarrera onen ondoren, Euzkera'tzaz esandako zen-bait gauza, aldian aldikoa, adieraziko dizkizugu.

Karmele Goñi'ren idaz-lanetik bi atal berezi ditugu, ona:

"Agintezko ta Legezko idatzia gure izkuntzan egin aal izan ziran bezin laister, lenengo Euzko Jaurlaritzaren Agintezko Aldizkarian (Boletín Oficial) euzkeraz argitaratzea izan zan."

Geroztik, Euzko Batzar Nagusia (Consejo General Vasco) eratu zanean, guda bukatu ta onen eragozpenik gabe askoz errezagoa zala ta, gogo biziz itxaron genun Batzar onen Agintezko Aldizkaria, baiña au azaldu zanean, gure itxaropena etsipen biurtu zitzaigun.

Berezi degun urrengo zatian, Intxausti'tar Jesus'ek (lenengo Euzko Jaurlaritzaren itzultzailea) Koldo Lizundia'rekin izan zun ikustaldiko erantzueran garrantzitsuena jasoko degu:

"Gure aurreneko lanerako irizpidea, sort-erroen biltaketa izan zan, Agiriak euzkal sena izan zezaten. Benetan, gure itzulpenak errez irakurtzen zirala derizkiot. Euzkal joskera galtzeko arrixkuan arkitzen da gure izkuntza. Erderatik datozen itz asko erabiltzen dira. Garrantzitsuena, kaltegarriena auxe da: Izkuntza bere gogorik gabe, senarik gabe egiten ari dirala. Euzkera'ren erroan sustraitutako Euzkera sendotu bear degu."

ARBASOEN IZKUNTZA ZALEAK

ASKENENGO EUSKALDUNAREN BERBAK?

EUZKERA arazoaz idatzi duten idazle zerrenda, lu-zeegia da ta aspertu nai ez zaitugunez, urrengorako utziko degu.

Euzkerari buruzko azalpen onen ondoren, ona gal-dera batzuek:

Ez al zenezateke bizkortu, zabaldu, 1920 ngo. Lotazi-lla'n, Euskaltzaindia'k, ao batez onartua izan zan, Arana Goiri'tar Sabin'ek "Lecciones de ortografla del Euzkera Bizkaino" izeneko idaztian eragin zun EUZKERA?

— Ain oraingoak diran izadi-arloko esaerak erabi-lliaz. euzkera *zikintzen* duten *erderakadak* ez al ditezke kendu, onela euzkera *garbituaz*?

Zalantzarik izan ezkeru, jo guregana, pozik emango dizuegu gure laguntza.

"Euskerazaintza" ere or dezute, Euzkera'ri buruzko aolkuak emateko.

Zuen esku dan gaya ez izan arren, bere euzkalkia bes-terik erabiltzen ez dunak, lan-tokia izateko eskubidea izan dezan, zerbait egin al zenezateke?

Era guzietarako izparringietara, iragarkiak e.a. bial-tzen dituzutenean, batzuek bederik gipuzkeraz eta biz-kaieraz izatea eskatzen dizuegu.

E.G.A. ageria eskuratzeko, gipuzkeraz eta bizkayeraz gertu diranak ere onartuak izan ditezen, alegiñak egin.

Argitu berria dan "Jakintsuen Euzkal Iztegia".

Iztegi onek ez digu on askorik egingo, euzkalkiak sendotzeko alegin guzia egiten ez ba' degu.

Euzkera'ri buruzko argi-bide au azalduaz, "Arba-soen-Izkuntza-Zaleak" Elkartekoa'k eskatzen deguna-ren laburpena au da:

- a) Jaurlaritzak, arazo guzietan, Euzkalkiak onartu di-tzala.
- b) Erri Euzkera (Lurralde bakoitzean bere Euzkal-kia) irakasten dutenak, laguntza izan dezatela.
- d) IZKUNTZA-ESKOLAN, edozein euzkalki aur-kezten dutenak, onartuak izan ditezela.
- e) Arauak eman, erderakadak utziaz, itzak, euzkal sustrayetatik sortzeko, len egiten zuten bezela.

Gure eskaerak aztertu eta ondoren, euzkalki-euzkera sendotzeko alegiña egingo dezutela, itxaro degu. Euz-kalkiak galtzen utziko ba'genitu, EUZKERA il egingo bai zaigu. Orduan, au gertatu baiño len garaiz ba'gabiltza beñepein, Aragon'en, Valle da Anso'n artu zuten eraba-kia artu bearra izango degu (Deia 91-2-4 Iurgi Sarara idatz-lanean), auxe da: EZ ITXARON AZKENENGO EUSKALDUNAREN BERBAK ARTZEKO.

Au gertatu ez dedin, "Euzkera bai, baiña Euzkalki Euzkera", gure esaldia, egi biurtu dezagun.

Arzelus'tar Amale'k

IRAKURLE: 1. ZER'eri DAGOKION URTEKO SARIA ORDAINDU EZ BA'DOZU, BIALDU EGIZU "TXEKE" BAT "EUSKERAZALEAK ALKARTEA"REN IZENA EZARRITA COLON DE LA-RREATEGI 14, 2.ª ra. 1.200 PEZETA DIRA. ESKERRIK ASKO!

2. IDAZTEN BA-DAKIZU, IDATZI, LANAK URRI DATORKUZ-ETA. ESKERRAK BA-RRIRO.

ZUZENDARITZAK

OROILBOILTZOAK

Nire ura gero ta arinago
t'ezelan geldizerik ez dago,
ba doa bere lo-lekura.

Ur ariñeko zurrunbilloak
ba daroaztaz oroilboiltxoak
birrin batzuk ezik eskura.

Neuregana dodaz ozta-ozta
erreka egalean galduta
geratu yakozan apurrak,
argi puntutxu batzuk bezala,
biztu ta amatau, ez dakidala
egi diren ala guzurak.

Laño zuri antezko multzuak
aizerik aize biribilduak,
ametsak eta gurariak,
gaur ba direnak eta biar ez,
lora txorta baten larroak lez,
amen bateko mirariak.

Apurreritxo txikiak dira,
motel orbanak eta dirdira,
negar eta barreen txatalak,
ene deietara datozanak,
ozka bako irudi otzanak,
boiltxo koxkor apal-apalak.

Gogoratzen ederren arloa
t'eznarazten pekatuen loa

datorkit oroitzen birriña.
Baña, argiteze au ain da apurra
alperreko yat eskuen laburra
aztertzeke uren ariña.

Nire santukeri ta obena
dandana da ur ariñarena,
oroi birriñen olatua.
Neu ere gura ala ez gura
ba noa gelezina putzura,
arri biribil galdua.

Bizi pozak jota nagon arren
ba darabilt, bai, eztarri barren
esku itsu baten estua,
neuregana ezinik joana
uretan apurreritxo labana,
betiko gal dodan ordua.

LARROSA BEROA

Zer dakit nik zergaitik nagon gaur
ain illun betez aragi t'azur.
Otzez beteko adorez nago
gero ta gogoa geldoago.

Geldigeldi, ara, ez onako,
egon ustelean bizi bako.
Zer dala ta ete naiz ain uzkur
illunpetik urteteko bildur?

Neure biotz itxian nago ni
noiz ilko ta mairako ez daukat
ez ogi gozorik, ez goserik.

Ai, ene zulo ontako agoni
itzelean larrosa bero bat
laztan aal banei bakez beterik.

OA GAZTE

Oa i ere, gazte, bai arro, bai apala,
alperkeri gabeko erreka bat bezala
soloak ureztatzen, naroz ganezka ura
pozez bete daitean garautxoaren ardura.

Oa, gazte, oa ba eta eugaz doala
zukurik garbiena, anaiek edan aala,
eure biotz erdiko jarioen onura
izkanbil gorrienez mozkor daitean lurra.

Basa legor uts ordez, lur zalapartaria
sustraietan daitean, arrotuta lepoa,
arima garbientzat irakiten argia.

Oa errekan bera narotzen zelaidia,
zirikatzen geldoen goragura epoa
eta eskertuko deuk munduak oparia.

A. BIDAGUREN A.

BERRIOTXOA I

BERRIOTXOA ZORUNDUNA

Polit ederra ezpairik baga
Elorrioko erria
Jaunak egiña bere eskuakin
berebizi lorontzia,
lorontzi ortan lora ederra
Berriotxoa Balendin.
Milla zortzireun ogei ta zazpin
otsaillaren amalauan
euskal errin biotzean
jaio zan bera neguan
negua arren, bera bakana
usaintsu danen artean
bera ederren Bizkaian.
Bere aitatxo Ixidor jauna,
trebea arotzerian
bere amatxo, andra zabalak
Monika izena eban
gorengo andren artean.
Aita ta ama euskaldun utsak
euskera eben agoan,
kristautasunaz elkar eginda
apal maitez bizi ziran.
Aitak lan egin etxeko arotzerian
otoi ta lana jolas garbiak
orreik ebezan oituran.
Erri guztia olan bizi zan
konbentuaren antzean
Balendin seme kutun kutuna
jokera ori ikustean
etxe apala aurrera ioian
Nazaretoko, antzera

UMEAROA

Bertako udal etxe ederrean
antxe egoan eskola,
mutiko zintzo, jakin naiean
egunero ara doa.
Irakasleak esaten eben
Balendintxo da gorengo
apal langille garbi garbia
mutil gutxi beralako.
Jaunak egin dau gure Balendin
zerbait aundi izateko.
Udal aurrean parroki dago
eliz ederra bai ori,
araxe doa atsedenean
antxe bero bere otoi.
Oitura eder egun guztitan
joatea Jaun ikustera
egoten zala eliz barruan
aingeru baten antzera.
Bide on ona artu dau berak
olan zuzen ibilteko
bere elburu santu izate
olan dabela lortuko.
Bere etxean illuntzietan

lotara juate aurrean
bere pekatun ordaintzarako
zigor gogorra lepoan
Elorrion da lekaime etxe bat
gomutagarri betiko,
domekatarren eliz polita
egoki otoi eiteko;
gizaldietan bertan bizi da
lekaime mordo ederra,
beti otoian beti lanean
doaz santutasunera.
Bertara doa goiz guztietan
Balendin mutil gaztea
eliz mutil da bai berezia
meza laguntzen trebea.
Lekaime danak arriturikan
diñue danak batera:
meza bitarten Balendin dago
zeru aingerun artean."
Bene benetan aingeru bat da
mutil gazte au aldaran,
bera ikusiz somatuten da
dardara biotz erdian.
Olako mutil eder bakana
ziur izango aundia
gizaldietan egiz goratu
olako lore garbia.
Otoi zalea, Jainko zalea
baña ez dala epela
ez ta iñoiz be bere bizian
ez tamal eta goibela.
Pelotari da ez txikiena
euskal dantzari txaleldun,
erakutsiaz alde guztitan
bere aundi dan nortasun.
Olako kristau pozez betea
gora gorako jaioa,
orretarako egiten emen
eguneroko saioa.
Goiko maillara eldu daitean
entzun dau jaunaren deia:
"zatoz nirekin mundu itxirik
jarraitu nire bidia."

ABADE IKASTETXERA

Jaunaren bide jarraitzearren
itxi dau bere erria,
or doa pozik, morrozko eder
Logroño uri nausira.
Antxe dago ba ikaslekua
abade ikastetxea,
aro aretan Bizkaiko gotzain
antxe dagola jarrita,
naiz ta gaur egun gure gotzaiña
Bilbora da etorria.
Gazteiz, Bilbo Kalahorratik
Oraintsu banandu dira

emen daukaguz zorionean
euskal errian, begira!
Bai da guretzat zoragorria
gotzain emen izatea
gotzain eukitez gure artean
erriarentzat obea,

BERFO-OTXOA ABADEGAIA

Bai zan zorionekoa
bere biotzak nai ebalako
lortu abade izatea
Ikasle danen goi goitik egon
Elorrioko mutilla
askar zalako eta langille
beti goi elburu billa
Jaungoiko-zale purrukatua
otoi ta penitentzian
bizi nai eban etxe aretan
oso txarrena zan gelan.
Bere leioa zabalik egon
kaletik entzuten ziran
pekatukaitik artuten zitun
zigorkadeak sorbaldan
Irakasleak arriturikan
berari itandutean
erantzun sakon argi argiak
bardin erantzun guztitan,
Eredu legez ipinten eben,
bera lakorik ez egon,
daneen artean ezbaridiñazan.
Bere ikaste, ontasunean
txalogarria bera zan.
Olako gazte oso osokoa
Elorrioko erriak,
Jauna lagun ta izango dala
abadeetan sutsua,
bere biotza Espirituak
emonaz doai santua
Egun batean, egun larria,
diñotso erretoreak:
"Ezin zeindeke gurekin egon
joan bear zure etxera,
zure ordaiña ez dogu artu
ordaindu barik etxe onetan
ezin guk euki iñortxo;
pobreak gara ezin guk iaun;
etxera zuk joan bear ko."
Negar begitan zauri biotzan
badoa Elorriona
arotzerian bere aitagaz
zertxo bait irabaztera.
Bere gotzaiña au jakitean
asarre bene benetan
zelan orrela etxera bota
ikasle ona danetan.
Biur daitela ointxeber bertan
zelan bait ordaindukoa da

BERTSOAN

kontua dala mutil on onak
abadetzara eltzea.
Pozik zoratuz Berriotxo
Logroño'ra biurtzen da
izpar orregaz etxeko danak
bardin dagoz zoratuta.
Aurrera doa gure gaztea
ikasi, otoi ta otoi
dana alkartuz poztasunagaz
izateko apaiz goi goi.
Urteak joan urteak etorri
elduten iako ordua
abade santu izan nai dau ta
ori bere nai gozua.
Bildurrez nago esaten eban
ez naz ba oso santua,
autorlariak baketu eban
iñor be ez da naikoa
Itza aundiaz aurreratu zan
abadetza artutera,
negar begitan gogoan ezti
zorabioz baizan bera.
Lenengo meza Logroñoan bertan
biotz sutan emon eban,
meza luzea egun aretan
egola guztiz ezitan.

Ille batzutan jarraitu eban
bertan Logroñoan bizi
erri guztia eukan ingurun
santutasun ikusiaz.
Berak mezea esaten eban
eliza guzti guztitan
betekadea etzan faltako
naiz izan astegunean.
Aingeru antza eukan aldar
danak eukazan poz pozik
bere fedea agiri zala
begituz nai zan aldetik.
Erri aretan eliz askotan
itzaldi bero beroak
barruko suak urtetan eban
bere aoa beteaz.
Argi argitan ikusten zala
euki eban gertakizun
ikastarotan berotasuna
ori egon bere barruan.
Bai gauza aundi garrantzitsua
seminarion egote
antxe bakarrik ikasi leike
eta biotz bete bete.
Seminario ondo prestuak
egiten dau biotz barri
ondo atondu seminario,
egiteko gizon argi.
Noiz itzaldi bat berak eukala
errian zabalduten zan

erri guztia motrollon ioian
lekurik ete egoan.
Iñor kalean itanduten dau:
nora zoaz ariñean?
santuren berbak entzutera ni,
berak itz dagin eleizan.
Entzule danak urtetan eben
itzaldi entzun ostean
urtetan eben biotz beroaz
begitan poz agertuaz.
Zenbat gizonen biotz gogorak
berak bere itzaldikaz
bete zituan bere berbakaz
Jaunagana biurtuaz.

OSTERA ELORRIORA

Bere errira eldu zan gero
bere sendi ikustera
amaren mozu bero beroak
zorionez artutera
Aita an egon eurai begira
adur goxo dariola,
sendi egoan poz atsegiñez
abadea eukelako.
Errian bardin ikusten eben
Balendin santua zala
nai eben danak biotz biotzez
errian geldi zedilla.
Egin ebazan egun guztitan
pozez egozan ta barrez
Agur danari egiten eutsen
geldi ez bazan an bertan
negarrez geldiko ziren.
Logroñoan legez erri guztia
bere meza sermoitara;
euskera bigun bere izkuntzan
erabil beti euskera
Alde guztitan ereiten eban
santutasun usain ona
aita ta ama pozik zoratuz
erri guztia txaloka,

BIDE BARRI BILLA

Bere biotza artaga egon
zer egin eiken bizitzan,
euskal errian abade asko,
urri beste batzuetan,
gogoan artuz mixiolari
juatea urrutitara
an izateko abade ona
sutsu eta Kristotarra,
Orretarako ioan zan laster
Loiolara argi billa
gogo iñarkun antxe egiñik
biotz argitu zedilla.
Erabagia antxe artu dau
misiotara joateko

erabagi au izango zala
barrua baketuteko
erabagia artuta dago
orain zelan bete bera?
ez da erresa argitze ori
besten laguntasun bage.
Japon aldera joango ete naz
edo ta Tonkin aldera?
ezpaian dago Jaunaren aurren
nairik eldu argitara.
itaunka dago zuzendariai
norantza joango ete dan;
lagundu aita zalantzan!
Ez nauke nai nik erratutea
bide artez billatzean
bide erratzen ba dot oi aita
bizitza guztin damutan.
Josu lagunak ba al dozuez
mixio VIETNANNEAN?
Erantzun eutsen josu lagunak;
"Ez daukagu erri artan!
Badakit baña Domekatarrak
ba dituela an bertan
gertauten dira ara joateko
Okañako konbentuan.
Goiz alde baten illun erdian
urtengo dau bere erri
etxekoen danen ixil ixillik
agurrik be egin barik.
Bildur da eurak ez itxitea
negar ta errekuakaz;
gero eskutitz idatziagaz
olan eurak agurtuaz.
Eskutitz artan bigun diñotse
"Jaunaren itza entzun dot
nire gogoan izango zaree
nire etxeko dan danok.
Or doa ba goixe goixetik,
esanaz bere biotz barruan:
santutasungo bidetik,
nai dot nik izan santu santua,
orretarako jaio naz
Bizkai aldean izan dagien
aldaran santu barri bat.
Gurari aundi bere biotzan
betetuko dan egiaz
ori dakigu egi egitan
bere bizitza santuaz.
Aundi zara zu, Balendin maite
goren gorengo errian
zu zaralata Bizkai aldean
arrotasun biotzetan.
Agur Balendin zoaz ba arin
zeure naia betetera
egi biurtuz martiritzagaz
guretzat aintza ederra.
(j') GALLASTEGI'tar
KLAUDIO'k

AITA LINO'RI OMENALDIA

Dima bere errian egin geuntsan Aita Lino'ri ondo irabazia eban omenaldia. Ezin aitzu izango dogu egun aretan Agustin Egiguren, erriko eleizearen buruzan Sakramentino adiskideak emon eban laguntza oparoa.

Eleizkizuna amaitu ondoren, Udalaren liburutegian egin gendun jakintzazko ekiñaldia, Lino'ren lan txalogarria goratuz.

Gero Oba'ra igon gintzazan eta bere jaiote-etxean oroitarria ipiñi gendun, Aldundiko Jakintza Saillean arduradun dan Manu Legarreta gure artean zala. Beronek kendu eban idazkiaren gaiñeko estalkia.

Eta eguna amaitzeko Goikoetxe jatetxean senide-arteke bazkaria.

Gure maitasuna ta esker ona agertzeko erea izan gendun egun aretan eta pozik bete gendun geure zeregin ori.

Egun aretan pozik ikusi genduan Lino bera be, adiskide-giro aretan.

Zori txarrez pozaldiak ludi onetan laburrak izaten dira eta an izan giñan bere lagunak Begoña'ko Santutxu'n dan Karmeldarren eleizan alkartu giñan barriro, oraingo onetan bere illetea ospatzeko.

Betiko zori onean artu dagiala Jaungoiko Aita Onak.



Aita Lino ta bere adiskideen artean, or ikusten dogu Pedro Pujana idazle zeatza ta sakona, Lino'ren antzera euskerearen billatze-lana egiten diarduana. Eta Atutxa'tar Julio Osagillea.



Lino ta bere senideakaz batera, or daukagu aita Santi, Lino'ren adiskidea eta bera lez Karmeladarra. Eta eskoi-aldean Aita Luis Arostegi gaur Karmeldarren erki-buru dogun Gatikar jatorra eta euskal idazle zeatza.

Omenaldi aretako une garrantzitsu bat: Aita Lino'ren ondoan Manu Legarreta Igorre'tarra, Aldundian Kultura -saillean zuzendari dana. Atzean Dima'ko alkate dan Etxebarria jauna eta urren Paulin Solozabal olerkari ezaguna.

BESTE OMENALDI BATZUTAN

EUSKERAZAINTZA'k eratu dauzan omenaldietara utsik egin barik etorten zan Aita Lino. Gogoratu dagiguzan batzuk, argazkiai begiratu:



Argazki au Zeanuri'ko omenaldian atera zan.

Larrakoetxea'tar Bedita Aitari egiña zan omenaldia. Ondo irabazia, egin eban lan ikaragarria egin ebalalako. Beste lan batzuren artean Larrakoetxeak Shakespeare' ren antzerki-lan guztiak euskeratu ebazan Franco'ren menpean euskerea isillik egotera beartuta egoan aldi aretan. Lanik geiena Ameriketn egiña da.

Larrakoetxea'ren ondoan or agertzen da aita Lino, eskoi-aldean eta ezker-aldean guztiok gogoan daukagun Alberto Onaindia jauna. Oraintsu il jakun au be eta orain diardue bere agiritegiko agiri guztiak argitarazeko asmotan.

Eta Alberdo jaunaren ondoan aita Santi Onaindia pentsaketa ta azalpen sakonak egiten.



Urrengo argazki au be Zeanuri' n egiña da. Or leioaren gaiñean ikusi daiteke Manterola'tar Gabirel abade euskalzaleari egindako omenaldian ipiñi zan oroitarrria eta barrenean, Euskerazaintzaren Lendakari zan Aita Lino oroitarrriaren estalkia alboratzen.

Aita Lino bere lagunakaz, Gabirel Manterola'ri egindako omenaldian. Ezkerretik asita: Iñaki Zubiri, Aita Lino, Joseba Zubikarai, Augustin Zubikarai, Pedro Zelaia (Eibartarra) eta Aita Santi.

IKASTARORA BARRIRO

Udea igaro jaku eta negurantz garoezan egun
illun eta laburrak, egun euritsuak, urreratu jakuz.

Eta sasoi onetan gure gazteak ikasketara urreratzen
dira Ikastetxeetan, ikastoletan eta Ikastegietan.

Euskaldun asko be ikasturtearen asiera onetan ur-
duri dagoz, euskerea menperatzeko gurariaz.

EUSKERAZALEAK aspaldiko urteetan egiten
dogun alegiña da, Bilbao'tarrai batez be, euskera ira-
kastea. Aurten be egingo dogu lan ori, baiña tamalez
autortu bear dogu gure ikasleak geroago ta gitxiago
dirala.

Ez da au gure arazoa bakarrik, beste ikastaro ba-
tzuk be arazo bardiñakaz babiltzala entzun dogu.

Zer jazoten da?

Euskerearen zaletasuna galdu egin ete da? Gauza
bildurgarria litzake ori. Zaletasun ori galtzen dan
neurrian galtzen da abertzaleatasuna be eta gure erria
arriskuan ikusten dogu.

Dei bizia eta zolia egiten dautsegu ba, batez be Bil-
bao'tarrai ikastaro onetan izena emon dagien eta gure
izkuntza eskuratzen alegindu daitezcan. Ortik ez dabe
aterako poza baiño.

(4n. ORRIALDETIK)

Nik batu dagikedan
uzta orren ugaria,
zeure suzko labea,
otoi, sutu eidazu.
Ta antxe zeure ezpanez
eriorik odola,
neuretan ezarri
betiereko pa-mosua.
*Ordun ez geiago negarrik,
ez, ez zure Arpegian;
eta betiko irribarrean
zure irudia nik ikusiko.*

BETIKO KANTA

- Lur arrotzean lekutua,
kanta nai dautzut il arte;
betiko kanta jo nai dautzut...
Maitasunezko sutzarrak atera,
erbeste ontako min latzak
illuntzen dabezanak, kanta nai ditut!
- Ai, Jesus, ene maitea!,
edertasun uts, zelan emon Zu,
neurri barik arima aulari!


Egin daidala, gozotasun gozo!,
ordaiñez Zugaz orobat
egiz ekiñik serafin biziari.

- Zelan aztu saiatzen da
zure maitasuna, txiki nazala,
Zu neure barruan gordetzeko!
Eder bekit ezkutu aundi ori,
zure kaigutzak maite-azorik
katez zeure atxiki ni egiteko.
- Ail, sutzen nozun maitasuna,
zauri naizu ariman, jar ni sutan
kiskal bear dodan sutzarrean!
Nik daskat bai, ene jainkoa!
Zugaitik nai dot bizi gura,
zure sutan, opari errean...
- Ementxe nire oiñaze-miñak,
poz-atsegiñak, maitezko sutan,
arima Jaunagana egaztean...
Zeruak!, aberri eder, goi-goiko:
kanta bakar-bakarraren poema,
kanta ta kanta betierean!

(1896.martxoaren 10)

A. SANTI ONAINDAIA'K
EUSKERATUA

IZKUNTZA BAT BERA DAUKAGU



*Auxe dozu zure betiko
Kutxa. Bere berbea bete
eta zure bear-izanak
ulertzen dauzan Kutxa.
Etorkizunera zabalik dagoan
Erakundea, etenbako
gora-gogoagaz
bere erriko jenteari
laguntza-gai osoak
eskintzen dautsozana.
Beti dago zugandik ur
izkuntza bakar baten
alkar ulertu daikegun.*



Bilbao Bizkaia Kutxa